

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ELGOIBARKO UDALA**Hirigintza***Iragarkia*

Udal Plenoak, 2016ko irailaren 29an egindako bilkuran, behin betikoz onartu zuen, «Gazteen topagune gisa erabiltzen diren lokalak arautzen dituen Udal Ordenantza».

Adierazten da, argitaratzen den Ordenantzaren aurka, aurkeztu ahal izango dela administrazio auzigaietako errekurtsioa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazio Auzigaietako Aretoan, bi hileko epean iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Toki Araubidearen Oinarri-Arauk arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren eraginetara, aipatu Ordenantzaren testu osoa ematen de argitara.

Elgoibar, 2016ko urriaren 17a.—Alkatea. (7193)

Gazteentzako topagune gisa erabiltzen diren lokalak arautzen dituen udal ordenantza.

ZIOEN AZALPENA

Gazteen topaguneak nerabeek eta gazteek erabiltzen dituzten lokalak dira, aisialdiko erabilera pribatura bideratuta daudenak. Nerabeek eta gazteak biltzeko guneak dira, beraien harremanak sendotzeko aukera ematen dietenak eta haien sozializazio prozesuan eta heldutasunerako bidean funtzio garrantzitsua betetzen dutenak.

Lokal horiek herrien eta hirien biziberritzean duten eragina aipatu behar da. Azken urteotan, merkataritza gune berriak irekitzeak eta krisiak berak, zenbait saltoki txikiren itxiera ekarri du. Horren ondorioz, nolabait, erdiguneak hein batean hustu egin dira, eta hutsik geratu diren lokal horiek dira, hain zuzen ere, nerabeek eta gazteek alokatzen dituztenak, herriko erdiguneak eta auzoak biziberrituz.

Gazteek lokal horiek erabiltzeak kalea seguruago bilakatzen ere lagundu du. Kanean jende gehiago dago, eta horri esker, neurri batean, zailagoa da emakumeentzat arriskutsuak izan daitezkeen puntu beltzak hedatzea.

Aitzitik, lokal horiek herritarren arteko gatazka iturri ere izan daitezke; izan ere, lokalak era egokian ez erabiltzeak bizikidetzara arazoak ekar ditzake. Honela, lokalen erabiltzaileek zarata egiteak, bizilagunen atsedenerako eskubidea urratu dezake, zikin-keria uzteak, auzoa txukun izatea galaraz dezake e.a.

Hau guztia kontutan hartuta, Elgoibarko Udalak gazteen lokalen erabilera arautu nahi du; gazteek lokalak erabiltzeko aukera izan dezaten, baldin eta bizilagunekin eta orokorrean herritar guztiarekin elkarbizitza egokia bermatzen bada.

Honako araudi hau, 2010eko abenduaren 23an Udal Plenoak onartutako Elgoibarko gazteen topaguneei buruzko udal araudiaren egokitzapena da. Ordutik hona, egindako ibilbidean,

AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR**Urbanismo***Anuncio*

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el 29 de septiembre de 2016, aprobó definitivamente la «Ordenanza Municipal Reguladora de los locales destinados a punto de encuentro de jóvenes».

Contra la presente Ordenanza se podrá interponer, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio.

En virtud, y a los efectos de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto íntegro de la citada Ordenanza.

Elgoibar, a 17 de octubre de 2016.—El alcalde. (7193)

Ordenanza municipal reguladora de los locales destinados a punto de encuentro de jóvenes.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Los locales de encuentro de la juventud son locales utilizados por las y los adolescentes y jóvenes, y que están destinados al uso privado en el ámbito del ocio. Son lugares de reunión de personas jóvenes y adolescentes, que facilitan el fortalecimiento de sus relaciones y cumplen una función significativa en su proceso de socialización y en su tránsito hacia la madurez.

Es de destacar la influencia que tienen esos locales en el fortalecimiento de pueblos y ciudades. En los últimos años, la apertura de nuevas zonas comerciales, ha ocasionado el cierre de algunos comercios, a consecuencia de la crisis. Eso, en cierto modo, ha provocado la desocupación de los centros de población; y esos locales que han quedado vacíos son los que alquilan las y los adolescentes y jóvenes, impulsando el centro y los barrios de la localidad.

El uso de los locales por parte de la población juvenil ha facilitado también que las calles sean más seguras. En la calle hay más gente, y con ello, en cierta medida, también se evita que proliferen los puntos negros que pueden ser peligrosos para las mujeres.

Por el contrario, esos locales también pueden ser fuente de conflicto para la ciudadanía; un uso inapropiado puede generar problemas de convivencia. De ese modo, el hecho de que las personas usuarias de los locales generen ruido puede vulnerar el derecho al descanso de la ciudadanía; el hecho de dejar desperdicios puede hacer que el barrio no esté limpio, etc.

Teniendo en cuenta todo esto, el Ayuntamiento de Elgoibar pretende regular el uso de los locales juveniles; para que la juventud tenga la oportunidad de utilizar los locales juveniles, siempre y cuando se garantice la convivencia adecuada con las y los vecinos, y con la ciudadanía en general.

Esta normativa es una adaptación de la normativa municipal sobre los puntos de encuentro juveniles, que fue aprobada por el Pleno Municipal el 23 de diciembre de 2010. Desde

eta batez ere, arau praktikan jartzerako orduan, hainbat egokitzapen eta hobekuntza egiteko beharra ikusi da.

Egokitzapen eta hobekuntza horietan, gazteen iritzia jaso da.

Hala, Ordenantzaren helburua bikoitza da: alde batetik, lokalek beharrezkoak diren gutxieneko segurtasun eta garbitasun baldintzak bete ditzatela bermatzea; eta bestetik, lokalek duten jardunaren bilakaera eta bizilagunek jarduera horren ondorioz, eragozpenik ez izateko duten eskubidea uztartzea. Azken honen haritik, Ordenantzak bizikidetzaren protokoloa bat ezartzen du, erabiltzaileek arau-hauste gisa jasota dauden jarduerak egiten dituztenean, abian jarriko dena.

Ordenantzak hainbat arau ezartzen ditu, arestiko erabilera xede duten lokalek bete beharko dituztenak. Lokal horiek jardueraren hasierari buruzko aurretiazko adierazpena aurkeztu beharko dute Udalean. Adierazpena aurkezteko ardura, bestealde, lokalaren jabearena izango da.

Azkenik, Udalak erregistro bat sortuko du, non gazteentzako topagune gisa erabiltzen diren lokal guztiak inskribatuko diren. Bertan, lokalaren jabearen datuak, lokala erabiliko duen kuadrilla e.a. jasoko dira. Erregistro hori Haur eta Gazte sustapenerako Udal Sailak kudeatuko du, eta lagungarria izango da, gatazkaren bat sortzen baldin bada, Udalak gazteen eta bizilagunen arteko bitartekaritzan lanak egin ditzan.

Ordenantzak, halaber, topagunearen jarduera burutzeko baldintzak ezartzen ditu, eta adierazten du zeintzuk diren lokalek erabiltzaileek izango dituzten betebeharrak eta debekuak. Horiek horrela, arau-hauste arin, larri eta oso larri gisa tipifikatuta dauden jarrerak ezartzen dira. Hala, arau-hausteren bat eginez gero, «bizikidetzaren protokoloa» aktibatuko da, eta Ordenantzan ezarritako kautelazko neurriak hartuko dira: hala nola, ohartarazpenetik hasi eta lokala aldi baterako, hau da, hilabeterako edo bi hilabeterako, ixtera arte.

Ordenantza berri honek aurrekoa, 2010eko abenduaren 23an onartu zena, indargabetzen du, eta sei hilabeteko araubide iragankorra ezartzen du, ordenantza hau indarrean sartzen den uanean, abian dauden gazteen lokalak bertan ezarritako zehaztapenetara egokitu daitezten.

I. ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.

Ordenantza honen xedea da, Elgoibarko udalerrian, gazteak elkartzeko gune edo topagune gisa erabiltzen diren lokalen erabilera arautzea.

Gazteen topagune gisa erabiltzen diren lokalak, oro har, gune pribatuak dira, sarrera mugatua dutenak, eta herritar guztiarentzako zabalik ez daudenak.

Ordenantza honen helburuak ondorengoak dira:

a) Gazteek elkartzeko toki eta topagune gisa erabiltzen dituzten lokalak gutxieneko segurtasun eta garbitasun baldintzak betetzen dituztela bermatzea.

b) Gazteek topaguneetan burutzen duten jarduera eta bizilagunek, jarduera horren ondorioz, eragozpenik ez izateko duten eskubidea bermatzea.

c) Arestian adierazitakoaren haritik, Ordenantza honek bizikidetzaren protokoloa bat ezartzen du, hain zuzen, lokalek erabiltzaileek arau-hauste gisa tipifikatuta dauden jarduerak egiten dituztenean abian jarriko dena.

2. artikulua. Ezarpen eremua.

Ordenantza honen ezarpen eremua izango dira Udalerrian, bizitegiarako hiri-lurzoruan kokatuta dauden gazteen topaguneak.

entonces, en su desarrollo, y sobre todo, a la hora de llevarla a la práctica, se ha observado la necesidad de realizar una serie de adaptaciones y mejoras en la misma.

A la hora de llevar a cabo las adaptaciones y mejoras, se ha recogido la opinión de los y las jóvenes.

Así, el objetivo de la Ordenanza es doble: por un lado, garantizar que los locales cumplan con las condiciones mínimas de seguridad e higiene; por otro, conciliar el desarrollo de la actividad de local de reunión con el derecho de los vecinos de no sufrir molestias generadas por dicha actividad. Al hilo de esto último, la Ordenanza establece un protocolo de convivencia que se pondrá en marcha en el supuesto de que por parte de los usuarios se produzcan actuaciones tipificadas como infracción.

La Ordenanza establece las condiciones que deberán cumplir los locales para que puedan ser destinados al uso que nos ocupa. Dichos locales habrán de tramitar la comunicación previa del inicio de la actividad ante el Ayuntamiento, siendo esto último responsabilidad de la propiedad del local.

Por último el Ayuntamiento creará un registro donde se inscribirán todos los locales con destino a punto de encuentro juvenil, junto con los datos de la persona propietaria, la cuadrilla usuaria, etc. Dicho registro será gestionado por el Departamento de Promoción de la Infancia y Juventud del Ayuntamiento y servirá de apoyo para que el Ayuntamiento pueda realizar las labores de mediación entre los y las jóvenes y el vecindario, en caso de existencia de conflicto.

La Ordenanza establece, a su vez, las condiciones del desarrollo de la actividad del punto de encuentro y señala cuáles son las obligaciones y prohibiciones de las personas usuarias de los locales. En base a esto se establecen conductas tipificadas como infracciones leves y graves, cuya comisión conllevará la activación del «protocolo de convivencia» y la adopción de las medidas cautelares establecidas en la Ordenanza, que van desde el apercibimiento, al cierre temporal del local por espacio de uno o dos meses (según se trate de infracción leve o grave).

Esta nueva Ordenanza deroga a la anterior, aprobada el 23 de diciembre de 2010, y establece un régimen transitorio de seis meses para que los locales de jóvenes existentes en el momento de entrada en vigor de la presente se adapten a las determinaciones de la misma.

I. GENERALIDADES

Artículo 1. Objeto de la Ordenanza.

Es objeto de la presente Ordenanza la regulación de los locales destinados a espacios de reunión o punto de encuentro de jóvenes en el Municipio de Elgoibar.

Los locales destinados a punto de encuentro de jóvenes son espacios privados con acceso limitado, y que no están abiertos al público en general.

Los objetivos de la presente Ordenanza son los siguientes:

a) Garantizar que los locales utilizados por jóvenes como espacio de reunión o punto de encuentro, cumplan con unas condiciones mínimas de seguridad e higiene.

b) Conciliar el desarrollo de la actividad de espacio de reunión de jóvenes con el derecho del vecindario de no sufrir molestias generadas por dicha actividad.

c) Al hilo de lo anterior, la presente Ordenanza establece un protocolo de convivencia que se pondrá en marcha en el supuesto en que por parte de las personas usuarias de los locales se produzcan actuaciones tipificadas como infracción.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

Constituyen el ámbito de aplicación de la presente Ordenanza los puntos de encuentro de jóvenes ubicados en el suelo urbano residencial del Municipio.

Beste alde batetik, Ordenantzak ondorengoei eragingo die:

- Gaur egun dauden lokalei.
- Irekitzen diren lokal berriei.

3. artikulua. *Ordenantza honen xede diren lokalek bete behar dituzten baldintzak.*

A. Baldintza urbanistiko eta arkitektonikoak:

a) Lokalak beheko solairuan edo erdi-sotoan kokatuta egongo dira.

b) Lokalerako sarbidea, zuzenean, herri bidean egongo da. Lokalera, bestalde, ataria ez den beste sarbide batetik sartuko da.

c) Lokala ez da beste lokal bati loturik egongo, eta beste erabileraren bat duen beste lokalen baten zatia ere ez da izango.

d) Lokalaren barrualdean, gutxieneko altuera librea ez da 5,50 m-tik beherakoa izango, edo bestela, ez da izango eraikina eraiki zenean eska zitekeena baino baxuagoa.

e) Lokalen oinaren gutxieneko azalera erabilgarria 25 m²koa izango da.

B. Suteen aurka babesteko baldintzak:

a) Suteen aurkako prebentzio eta babes neurriak ezarriko dira, kokapen egokian eta seinaleztatuta egongo direnak. Nolanahi ere, lokalean, gutxienez, su-itzalgailu homologatu bat izango da, eta su-detektagailu alarmadunak ere bai.

C. Osasunaren eta ingurumenaren arloko baldintzak:

a) Lokalak gutxieneko garbitasun baldintzak bete beharko ditu. Hori dela-eta, lokala egokituta egon beharko da, garbiketa lanak erraz egin ahal izan daitezten. Zoruak, hormak eta sabaikiak lauak eta erraz garbitzeko modukoak izan beharko dira.

b) Lokalak argiztapen naturala edo artifiziala izan beharko du.

c) Ez da baimenik emango sukaldeak, plantxak, labeak edo kea sor dezakeen edozein gailu instalatzeko.

d) Gutxienez konketa eta komuna dituen komuna izan beharko du, salbu eta erabileraren erkidea duten guneetan, komuna dagoenean eta komun hori erabiltzeko aukera justifikatzen denean.

4. artikulua. *Kokapenari buruzko baldintza orokorrak.*

1. Gazteen topaguneen artean, gutxienez, 50 m-ko tartea izan beharko da. Topagune bakarra izango da atari zenbaki bakoitzean.

2. Gutxieneko tarte hau ez zaie ezarriko, Ordenantza hau indarrean sartu aurretik, abian zeuden lokalei.

3. Dena dela, bi topaguneraren arteko tartea 50 m-tik beherakoa baldin bada, eta lokal horietarikoren batek jarduera eteten badu edo titulartasuna aldatzen bada, ezin izango zaio beste baimenik eman.

5. artikulua. *Haur eta Gazte Sustapenerako Sailaren jarduera.*

Haur eta Gazte Sustapenerako Udal Sailak informazio, orientabide eta sentsibilizazio funtzioak beteko ditu, Ordenantza honen xede diren topagunetako jardueraren bilakaerarekin zerikusia duen gatazkarik sor ez dadin.

Horretaz gain aholkularitza zerbitzua eskainiko die gazteei, gurasoei, lokalen jabeei eta bizilagunei, Ordenantza honen edukari eta ezarpenari dagokionez.

Udaltzaingoarekin elkarlanean, gazteen lokalen Erregistroa sortu, zaindu eta kudeatuko du, eta etengabe eguneratuta izango du.

Por otro lado, la Ordenanza afecta a:

- Los locales existentes actualmente.
- Los locales de nueva apertura.

Artículo 3. *Condiciones que deben reunir los locales objeto de la presente Ordenanza.*

A. Condiciones urbanísticas y arquitectónicas:

a) Los locales estarán ubicados en planta baja o planta semisótano.

b) El acceso al local se efectuará directamente desde la vía pública, por un acceso independiente al portal.

c) El local no estará unido a otro local, ni formará parte de otro local que tenga un uso diferente.

d) La altura libre mínima en el interior del local no será inferior a 2,50 m o inferior a la que en el momento de construcción del edificio fuera exigible.

e) La superficie útil mínima de los locales, en planta, será de 25 m².

B. Condiciones de protección contra incendios:

a) Se establecerán mecanismos de prevención y protección contra incendios, en ubicación adecuada y señalizada. En todo caso, el local contará como mínimo con un extintor de incendios homologado y con detectores de fuego con alarma.

C. Condiciones sanitarias y ambientales:

a) El local deberá cumplir unas medidas mínimas de higiene. Por ello, el local deberá estar acondicionado de forma que se puedan efectuar las labores de limpieza de manera fácil: el piso del suelo, las paredes y los techos deberán ser lisos y fáciles de limpiar.

b) El local deberá disponer de iluminación natural o artificial.

c) No se permitirá la instalación de cocinas, planchas, hornos o cualquier elemento productor de humos.

d) Deberá disponer de un aseo dotado como mínimo de lavabo e inodoro, salvo que se justifique la posibilidad de utilización del mismo, si lo hubiere, en zonas de uso común.

Artículo 4. *Condiciones generales del emplazamiento.*

1. Se garantizará una distancia mínima de 50 m entre los puntos de encuentro de jóvenes. Existirá un solo punto de encuentro por cada número de portal.

2. Esta distancia mínima no será de aplicación en los puntos de encuentro existentes a la entrada en vigor de esta Ordenanza.

3. No obstante, si la distancia entre dos puntos de encuentro es menor que 50 m, en el caso de que uno de ellos suspenda su actividad o cambie de titularidad no se le podrá conceder una nueva autorización.

Artículo 5. *Actuación del Departamento de Promoción de la Infancia y Juventud.*

El Departamento de Promoción de la Infancia y Juventud del Ayuntamiento, desarrollará la función de información, orientación y sensibilización, a fin de evitar posibles conflictos en relación con el desarrollo de la actividad de los puntos de encuentro objeto de la presente Ordenanza.

Ofrecerá también el servicio de asesoramiento a jóvenes, padres y madres, personas propietarias de locales y a vecinos y vecinas, en relación al contenido y aplicación de la Ordenanza.

Crearé, custodiaré y gestionaré en coordinación con la Policía Municipal el Registro de locales de jóvenes, y lo mantendrá permanentemente actualizado.

Bitartekaritza lanak egingo ditu topagune baten erabiltzailearen eta Erkidegoko bizilagunen artean sortzen diren gatazketan.

Bizikidetzatza protokoloa abiaraziko du, lokalen erabiltzaileek arau-hausteak egiten baldin badituzte.

II. LOKAL BERRIAK IREKITZEKO, EDO GAUR EGUN, GAZTEEN TOPAGUNE GISA ERABILTZEN DIREN LOKALAK ERREGULARIZATZEKO PROZEDURA

6. artikulua. *Prozeduraren ezarpen eremua.*

Kapitulu honetan ezartzen den prozedura ezarriko zaie irekitzen diren lokal berriei nahiz gaur egun erabiltzen diren eta erregularizatu behar diren lokalei.

7. artikulua. *Gazteen topaguneen jarduera hasteko aurre-tiazko adierazpena.*

Lehenik eta behin, lokal jakin batean, gazteen topaguneei dagokien jarduera hasteko, lokalaren jabeak jardueraren «aurretiazko adierazpenari» dagokion espedientea tramitatu beharko du. Hori dela-eta, Udalean, jarduerari xede horretarako eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztu beharko du: jarduera hasteko aurretiazko adierazpenari dagokion inprimakia. Horrekin batera ondorengo agiriak aurkeztuko dira: proiektu teknikoa, teknikari gaituak sinatutakoa eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsitakoa, non justifikatuko den lokalek betetzen dituztela, egin nahi den jarduera bideratzeko, indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen baldintzak; egiaztagiri teknikoa, non arautza emango den lokalak proiektuan adierazitako neurri guztiak betetzen dituela; eta bidenabar, su itzalgailuak eta detektagailuak mantentzeko kontratua.

Nolanahi ere, jardueraren titularrak eta arduraduna lokalaren jabea izango da.

Honela, esan daiteke, erabiltzaile taldea aldatzen baldin bada, ez dela titularitatea aldatuko; izan ere, jabeak titularrak izaten jarraituko du.

8. artikulua. *Obra baimena.*

Lokala egokitze obraren bat egin behar baldin bada, jabeak beharrezkoa den obra baimena eskatu beharko du, jarduerari dagokion aurretiazko adierazpena aurkeztu baino lehen.

9. artikulua. *Jarduera erregistratzea.*

Gazteen topaguneari dagokion jarduera egiteko beharrezkoa den udal baimena lortu eta gero, lokala gazteen lokalen Erregistroan inskribatu beharko da, aurrerago ezarriko denaren arabera.

10. artikulua. *Kontratua.*

Lokalek alokairu kontratua edo erabilera lagatzeko kontratua izan beharko dute, jabeak eta erabiltzaileek sinatutakoa. Erabiltzaileek adingabeak baldin badira, kontratua adingabeen guraso ahala edo tutoretza dutenek sinatu beharko dute.

Kontratua lokalaren erabiltzaile guztiek sinatzen ez baldin badute, kontratuarekin batera, agiri bat aurkeztu beharko da, non erabiltzaileen zerrenda jasoko den. Horretaz gain, erabiltzaileen izen-abizenak eta jaiotze data jasoko dira, erabiltzaileen adina egiaztatzea ahal izateko.

11. artikulua. *Erantzukizun Zibileko Asegurua.*

Lokalaren jabeak aseguru poliza bat kontratatu eta indarrean izan beharko du, lokalean daudenei nahiz hirugarrengoei sor dakizkiekeen kalteak direla-eta, erantzukizun zibila estaltzeko. Aseguru polizaren gutxienezko estaldura 300.000 eurokoa izango da. Hala eta guztiz ere, jabeak errentariei jasanarazi ahal izango die polizaren kostua.

Mediará en los conflictos que puedan ocasionarse entre las personas usuarias de un punto de encuentro y los vecinos y vecinas de la Comunidad.

Activará el protocolo de convivencia, en los casos en que se produzcan infracciones por parte de los usuarios y usuarias de los locales.

II. PROCEDIMIENTO PARA LA APERTURA DE NUEVOS LOCALES O PARA LA REGULARIZACIÓN DE LOS LOCALES DESTINADOS EN LA ACTUALIDAD A PUNTO DE ENCUENTRO DE JÓVENES

Artículo 6. *Ámbito de aplicación del procedimiento.*

El procedimiento que se establece en el presente capítulo será de aplicación tanto a los locales de nueva apertura, como a los que se encuentran actualmente en uso y han de ser objeto de regularización.

Artículo 7. *Comunicación previa de inicio de la actividad de punto de encuentro de jóvenes.*

En primer lugar, para el desarrollo de la actividad de punto de encuentro de jóvenes en un determinado local, el propietario o propietaria del mismo deberá tramitar el correspondiente expediente de «comunicación previa» de actividad, para lo cual habrá de presentar en el Ayuntamiento la documentación que a tal efecto se exige para las actividades: impreso de comunicación previa de inicio de actividad acompañado de proyecto técnico, suscrito por persona titulada competente y visado por el Colegio Oficial que corresponda, donde se justifique que el local reúne las condiciones exigidas en la normativa vigente para el desarrollo de la actividad a la que se pretende destinar, certificado del técnico o técnica señalando que el local cumple con todas las medidas señaladas en el proyecto y contrato de mantenimiento de extintores y detectores de fuego.

En todo caso, el/la titular y responsable de la actividad será la persona propietaria del local.

De esta forma se entiende que no existe un cambio de titularidad de la actividad cuando se produce un cambio del grupo de usuarios y/o usuarias, dado que el/la titular seguirá siendo la persona propietaria.

Artículo 8. *Licencia de obras.*

En caso de que fuera precisa la realización de alguna obra de acondicionamiento en el local, la persona propietaria deberá solicitar la correspondiente licencia municipal de obra, con carácter previo a la presentación de la comunicación previa de actividad.

Artículo 9. *Registro de la actividad.*

Una vez obtenida la correspondiente autorización municipal para el desarrollo de la actividad de punto de encuentro de jóvenes, el local deberá ser inscrito en el Registro de locales de jóvenes, conforme a lo que se establece más adelante.

Artículo 10. *Contrato.*

Los locales contarán con un contrato de arrendamiento o de cesión de uso, firmado por la persona propietaria y los usuarios y usuarias. En el caso de que las personas usuarias sean menores de edad, firmarán quienes ostenten su patria potestad o tutela.

En el caso de que el contrato no estuviera firmado por todas las personas usuarias del local, junto al contrato se deberá presentar un documento en el que se recoja la relación de los usuarios y usuarias, indicando nombres, apellidos y fecha de nacimiento, a fin de comprobar sus edades.

Artículo 11. *Seguro de responsabilidad civil.*

La propiedad del local deberá contratar una póliza de seguro en vigor que cubra la responsabilidad civil por los perjuicios que puedan ocasionarse tanto a quienes se encuentren en el local como a terceros. La cuantía mínima de la cobertura será de 300.000 euros. Todo ello, sin perjuicio de que la propiedad pueda repercutir el coste de la póliza a la parte arrendataria.

Asegurua kontratatzen duenak, urtero, urteko ordainagiria ordaindu izanaren agiriaren kopia aurkeztu beharko dio Udalari, poliza indarrean dagoela egiaztatzeko. Hori dela-eta, Udalak gutun bat bidaliko die interesdunei betebeharrak egiaztatzeko.

III. GAZTEEN LOKALEN ERREGISTROA ETA ERREGISTROAREN KUDEAKETA

12. artikulua. Gazteen lokalen erregistroa.

Udalak gazteen lokalen Erregistroa jasoko du, eta bertan, ondorengo datuak eta agiriak jasoko dira:

- Lokalaren kokapena.
- Azalera.
- Jabearen identifikazioa.
- Jarduera egiteko udal baimenaren data.

– Lokalaren gehieneko edukiera.

– Lokala erabiltzen duen kuadrillaren datuak: erabiltzaile kopurua; bi solaskideren identifikazioa; adinak; gazteak adingabeak baldin badira solaskide funtzioa izango duten bi gurasoren identifikazioa.

- Alokairu kontratuaren kopia.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia.

Ordenantza hau indarrean sartzen den unean abian dauden lokal guztiak, baita sortzen diren lokal berriak ere, gazteen lokalen Erregistroan erregistratu beharko dira.

13. artikulua. Haur eta Gazte Sustapenerako Sailaren kudeaketa.

Haur eta Gazte Sustapenerako Udal Saila izango da gazteen lokalen Erregistroa sortzeko eta kudeatzeko ardura izango duena, eta horretaz gain, erregistroa etengabe eguneratuta izateaz arduratuko da.

14. artikulua. Lokalak Erregistroan inskribatzeko prozedura.

Gazteen lokal bat lokalen Erregistroan inskribatzeko eskaera egin beharko da, eta bertan, ondorengo datuak jasoko beharko dira:

1. Lokalaren erabiltzaileen ordezkari gisa jardungo duten pertsonen izen-abizenak, NAN zenbakia eta harremanetarako telefonoa. Pertsona horiek adingabeak baldin badira, gurasoen edo tutoreen egiaztagiria aurkeztu beharko da.

2. Erabiltzaileak adingabeak baldin badira: Udalaren aurrean, solaskide gisa jardungo duten bi gurasoren izen-abizenak, NAN zenbakia eta harremanetarako telefonoa.

3. Lokalaren jabearen datuak: izen-abizenak eta telefonoa.

4. Lokalaren kokapena.

5. Lokalean jarduera egiteko udal baimena eman zeneko data.

Horretaz gain, ondoko dokumentazioa aurkeztuko da:

A. Alokairu kontratuaren kopia, edo hala badagokio, jabetza egiaztatzen duen agiria.

B. Jabearen aitoren erantzulea, non baieztatuko den Ordenantzaren eta ordenantzaren ondorioz sortzen diren erantzukizunen berri baduela.

C. Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza.

La persona contratante del seguro deberá presentar anualmente ante el Ayuntamiento la copia del justificante de pago del recibo anual, a efectos de acreditar la vigencia de la póliza. A dicho objeto el Ayuntamiento remitirá a los y las interesadas una carta recordatoria de dicha obligación.

III. REGISTRO DE LOCALES DE JOVENES Y GESTIÓN DEL MISMO

Artículo 12. Registro de locales de jóvenes.

El Ayuntamiento creará un Registro de locales de jóvenes en el que se consignarán los siguientes datos y documentos:

- Emplazamiento del local.
- Superficie.
- Identificación del propietario o propietaria.
- Fecha de la autorización municipal para el desarrollo de la actividad.
- Aforo máximo del local.

– Datos de la cuadrilla que ocupa el local: n.º de ocupantes, identificación de dos interlocutores, edades, en caso de ser jóvenes menores de edad identificación de dos padres o madres con función interlocutora.

- Copia del contrato de arrendamiento.
- Copia de la póliza de seguro de responsabilidad civil.

Todos los locales de jóvenes existentes a la entrada en vigor de esta Ordenanza, así como los de nueva creación deberán registrarse en el Registro de locales de jóvenes.

Artículo 13. Gestión por el Departamento de Promoción de la Infancia y Juventud.

El Departamento de Promoción de la Infancia y Juventud del Ayuntamiento será el encargado de crear y gestionar el Registro de locales de jóvenes, y cuidará que esté permanentemente actualizado.

Artículo 14. Procedimiento de inscripción de locales en el Registro.

Para inscribir un local en el Registro de locales de jóvenes habrá de presentarse una solicitud en la que se harán constar los siguientes datos:

1. Nombre, apellidos, número de DNI y teléfono de contacto de las dos personas que actuarán como interlocutoras de las personas usuarias del local. En caso de menores de edad, documento acreditativo de la autorización de sus padres, madres, tutores o tutoras.

2. En caso de que las personas usuarias sean menores de edad: nombre, apellidos, número de DNI y teléfono de contacto de dos padres o madres que actuarán como interlocutores frente al Ayuntamiento.

3. Datos de la persona propietaria del local: nombre, apellidos y teléfono.

4. Ubicación del local.

5. Fecha de la autorización municipal para el desarrollo de la actividad en el local.

Asimismo, se acompañará la siguiente documentación:

A. Copia del contrato de arrendamiento o en su caso, el documento acreditativo de la propiedad.

B. Declaración responsable del propietario o propietaria afirmando conocer la Ordenanza y de las responsabilidades derivadas de la misma.

C. Copia del seguro de responsabilidad civil.

15. artikulua. Gazteen lokalen Erregistroa eguneratzea.

Erregistroa etengabe eguneratuta egon beharko da, eta erregistro berean inskribatuta dagoen gorabeheraren bat aldazen baldin bada (kuadrillaren izena, ordezkariak...), Haur eta Gazte Sustapenerako Udal Sailari eman beharko zaio horren berri, Erregistroan inguruabar hori jasota utzi dezan.

Hori dela-eta, lokalaren jabeak erabiltzaile berriekin egingo dituen alokairu kontratu berriak Erregistro horretan jasota utzi beharko ditu.

16. artikulua. Udalaren komunikazioak zuzenduko zaizkion pertsona.

Lokalean burutzen den jarduera dela-eta, Udalak lokal jakin baten erabiltzaile den gazte taldeari bidali behar dizkion komunikazioak, solaskideetakoren bati zuzenduko zaio, baldin eta solaskide horiek adin nagusikoak badira.

Solaskideak adingabeak baldin badira, Udalaren jakinarazpen ofizialak solaskide izendatuta dauden, eta gazteen lokalen Erregistroan solaskidetzat ageri diren gurasoetako bati helaraziko zaizkio.

17. artikulua. Erregistratu gabeko lokalak.

Udalak gazteen biltokiari dagokion jarduera egiteko udal baimena duen lokalen bat gazteen lokalen Erregistroan inskribatuta ez dagoela antzematen baldin badu, lokalaren jabearekin eta erabiltzaileekin harremanetan jarriko da, eta lokala erregistro horretan inskribatzeko proposamena egingo die.

Erregistro horretan inskribatzen ez diren lokalek ez dituzte, Ordenantza honetan, lokal horientzat aurreikusten diren eskubideak izango.

18. artikulua. Ikuskapenerako eta kontrolerako eskumenak.

Udalak lokalak ikuskatu ahal izango ditu, lokal horiek zein egoeratan dauden egiaztatzeko eta gazteen topaguneen zerrenda eguneratuta edukitzeko. Alkatetzak edo dagokion zinegotziak egokitzen jotzen dituen neurriak hartu ahal izango ditu, Udalaren ikuskapen-funtzioa bermatzeko.

Lokalen baten jardueraren bilakaeran akatsak antzematen baldin badira, lokalaren arduradunari eskatuko zaio akats horiek konpon ditzala.

Akta jasoko da ikuskapen bisita egiten den bakoitzean. Akta horretan antzemandako akatsak jasoko dira, baldin badaude.

IV. LOKALEN JABEEN BETEBEHARRAK

19. artikulua. Jarduera egiteko baimena lortzea.

Lokalaren jabearen betebeharra izango da gazteen topaguneari dagokion jarduera egin ahal izateko udal baimena lortzea, behin jarduerari ekin aurreko adierazpenaren espedientea tramitatu ostean.

Lokalaren jabea arduradun administratiboa izango da Udalaren aurrean, baldin eta lokal horretan, gazteen topaguneari dagokion jarduera udalaren baimena izan gabe, hau da, jarduerari ekin aurreko adierazpenaren espedientea tramitatu gabe egiten bada.

Ondorio horietarako, aditzera ematen da, Lurzoruari eta Hiri-gintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 225, 3. artikuluan ezarritakoari jarraiki, arestian adierazitakoa hirigintzako arau-haustea izango dela, eta Lege horren 226, 2, a) artikuluan xedatutakoari jarraiki, 500 eurotik 5.000 eurora arteko isuna jarri ahal izango dela.

Artículo 15. Actualización del Registro de locales de jóvenes.

